

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

381 zb.
www.getxo.eus

>> 2023ko Iraila

URRIA >
ABENDUA
2023

IKASTAROAK
ETA JARDUERAK
GAZTEENTZAT



HASIBERRIENTZAKO
SUKALDARITZA
IKASTAROA



ZEINU- HIZKUNTZA

Nabarmen^{tzekoak}

> Zeinu-hizkuntzari eta sukaldaritzari buruzko oinarriko tailerrak

> 184 parte-hartzaile udako hiri-udalekuetan

> DiscoverEU, 18 urteko gazteen artean Europar Batasuneko kide izatearen sentimendua sustatzeko bidaia

DiscoverEU, 18 urteko gazteen artean Europar Batasuneko kide izatearen sentimendua sustatzeko bidaia

DiscoverEU Erasmus + programaren ekintza bat da, 18 urteko gazteei zuzendua (2005eko abenduaren 1etik 31ra bitartean jaiotakoak), eta Europa esploratzeko, bertako kultura-ondarea, historia eta jendea ezagutzeko aukera ematen du.

Oro har, trenbidean bidaiatuko dute onuradunek. Hala ere, ahalik eta sarbide handiena izateko, proiektuak garraibide alternatiboetan bidaiatzeko aukera ematen du, hala nola transbordadoreetan eta autokarretan, beharrezkoa denean, eta ingurumenari, denborari eta distantziari buruzko kontsiderazioak hartzen ditu kontuan.

Eskaerak aurkezteko epea urriaren 4an, 12:00etan, irekiko da, urriaren 18ra arte, ordu berean, informazio guztia dagoen web-gunean: https://youth.europa.eu/discovereu_es.

Bidaia 1 eta 30 egun artekoa izango da, eta 2024ko martxoaren 1etik 2025eko maiatzaren 31ra bitartean egin beharko da. Hautatutako pertsonak bakarrik bidaiatu ahal izango dute edo gehienez ere lau lagun gehitu ahal izango dituzte, eta DiscoverEUren Gazteen Europako Txartela jasoko dute, kultur bisitetan, kirol-tan, tokiko garraioan, ostatuan, bazkarian eta abarretan deskontuak lortzeko.



BEKAK SARIAK

* **Global Training 2023 beka**, Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia), SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia eta Eusko Jaurlaritzak deituta, Euskal Autonomia Erkidegoko 30 urtetik beherako unibertsitate-tituludunentzat, atzerrian prestatzeko eta esperientzia hartzeko beren profil akademikoarekin lotutako nazioarteko enpresa batean praktikak eginez. 6.415.000 euroko partida bideratuko da. Programak hasierako prestakuntza-aldia eta 6-12 hilabeteko praktikaldia ditu atzerriko enpresa eta erakundeetan. Eskaerak egiteko epea irailaren 22an amaituko da. Informazio gehiago hemen: <https://labur.eus/JSijV>

* **"Tiflos" literatura-sariak: poesia, ipuina eta eleberria**, gaztelaniaz, ONCE erakundeak deituta 18 urtetik gorakoentzat. Modalitateak eta sariak: Poesiarentzat, 10.000€; Ipuinarentzat, 10.000€; eta Eleberriarentzat, 17.000€. Ikusmen-urritasuna duten egileentzako sari bereziak: 5.000€ kategoria bakoitzeko/ 2.500€ akzesit bakarra. Lanak aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da.

Romoko Gaztelekuaren programazioa iraila

GureGune gaztelekua

Hilak 17, igandea: SUKALDARITZA: BUBBLE TEA
Hilak 19, asteartea: TXAPELKETA: JUST DANCE
Hilak 22, ostirala: ESKULANA: PORTABELAK
Hilak 23, larunbata: IRTEERA: PUNTA LUCERO
Hilak 28, osteguna: SUKALDARITZA: MILKSHAKE
Hilak 30, larunbata: IRTEERA

Algortako Gaztelekuaren programazioa iraila

GauEgun gaztelekua

Hilak 14, osteguna: MASTER CHEF: IZOTZ EDARIAK
Hilak 16, larunbata: GAZTE ZINEMA
Hilak 22, ostirala: MASTER CHEF: PIZZA
Hilak 23, larunbata: IRTEERA: PUNTA LUCERO
Hilak 28, osteguna: FUTBOLIN TXAPELKETA
Hilak 30, larunbata: IRTEERA SORPRESA



18 eta 30 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute Zeinu-hizkuntzari eta sukaldaritzari buruzko oinarrizko tailerrak

Gazteria Zerbitzuak 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat antolatutako tailerren doako eskaintzaren berri eman du. Oraingoan, zeinu-hizkuntzari eta

sukaldaritzari buruzko bi ikastaro eskainiko dira hasiberrientzatzat. Lehenengoa hizkuntza horren oinarrizko ikastaroa izango da, eta, horri esker, pertsona go-

rrek komunikazio-bide bat ezar dezakete gizarteko ingurukoekin. Bigarrenak tresna errazak eskainiko ditu dieta osasuntsu eta osasungarri baterako.

TAILERRAK ETA IKASTAROAK URRITIK ABENDURA

IKASTAROA	EGUNAK	ADINA	ORDUTEGIA	HIZKUNTZA	TOKIA	HELBURUA
ZEINU-HIZKUNTZA A1.1 OINARRIZKO IKASTAROA	Urriaren 16tik abenduaren 15era	18-30 urte	Online	Gaztelania eta zeinu-hizkuntza		Eskaintzaren bidez, egungo prestakuntza-eskaerari erantzutea eta aniztasuna Getxon integratzeko aukerak areagotu.
HASIBERRIENTZAKO SUKALDARITZA	Azaroak 9, 16, 23 eta 30	18-30 urte	18:00h-20:00h	Euskera	Azebarri Elkartea (Euskal Herria k. 14-16, Algorta)	Dieta orekatu eta osasuntsu bat sortzen ikasi modu erraz batean (teknikak eta errezetak). Gazteen emantzipazio- eta autozainketa-prozesua hobetu.

Informazioa eta izen-ematea doan eta zabalik, plazak agortu arte: **Gazte Bulegoa (Tangora Etxea, Algorta etorb. 98. Tel.: 944 66 03 53); gaztebulegoa@getxo.eus (izena eta harremanetarako telefonoarekin batera egin nahi den ikastaroa edo tailerra adierazita); www.getxo.eus/gazteria.**



184 parte-hartzaile udako hiri-udalekuetan

5 eta 12 urte bitarteko 104 neska eta 80 mutilak Udako Gazteria Zerbitzuak urtero antolatzen dituen hiri-udalekuez gozatu dute uda honetan. Uztailera bi hamabostaldietan, Geroa ikastolan eta San Inazio eta Romo ikastetxe publikoetan tailerrak, eskulanak, kirolak, jokoak, abestiak eta errezetak egin zituzten, baita Getxotik kanpo hainbat txango ere. Aurtengo gai nagusia **ORTU UDAKO ZURE HISTORIA!** izan zen, eta bere helburua izan zen hurrek beren mundu sinbolikoa osatzea eta beren irudimena eta errealitatera hurbiltzea. Udalekuek euskal kultura sustatzen dute eta hezkidetzat, kulturartekotasuna eta inklusioa lantzen dituzte.

GAZTE BULEGOAREN ORDUTEGIA

Algortako Etorbidea, 98. Tel.: 944660353

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
12:00-14:30h	12:00-14:30h	12:00-14:30h	12:00-14:30h	12:00-14:00h
	17:00-19:00h		17:00-19:00h	